

## 5. Agosti Xaho

### Aitor - Kantabriar kondaira



#### Xahoren jaiotzaren bigarren mendeurrenean

Josepe Agosti Xaho Atharratze-Sorholüze herrian jaio zen 1811ko urriaren 10ean eta Baionan hil zen 1858ko urriaren 22an. Euskal eta euskaldun idazle, kazetari eta politikoa izan zen. Ezkertiar, errepublikar, laiko eta euskal herrizale sutsua. Lehen ikasketak Oloronen eta Pauen egin ondoren Parisera joan zen hemeretzi urterekin.

Parisen zuzenbide ikasketak egin zituen eta ekialdeko hizkuntzetan espezialdu zen. Halaber izan zen kazetari, menturazale eta politikoa. 1835ean Hego Euskal Herrira jo zuen Lehen Gerra Karlistan ari ziren gudulariekin topo egin asmoz.

Bere garaiko eta antzinako euskaldunetz asko idatzi zuen eta Zumalakarregi karlistarekin fikziozko elkarrizketa idatzi zuen. Gernikaren suntsitzea eta Ipar Euskal Herriko gainbehera iragarri zituen. Euskal animismoaren aldekoa zen eta bere borondatez kristautasunetik kanpo jarri zuen bere burua. 1848ko Baionako altxamendu errepublikazalearen buru izan zen eta ondoren Pirineo Behereak departamenduko kontseilari nagusi (1849-1851).

Euskal nazio bakarraren alde egiten aurrenetakoa izan zen, Bidasoaren bi aldeetako euskaldunen batasun politikoa eskatuz. Euskal Herri osoan zabaldu zen "Aitor" irudi literarioa. Lau hizkuntzatako euskal hiztegia amaitu gabe utzi zuen. Garai hartan, elizkizunik gabe lurperatutako lehendabiziko euskalduna izan omen zen, eta gisa askotara, euskal abertzaletasunaren aitzindarizat har daiteke. (Laburpen honen iturria: *Duintasuna eta borroka bloga*)

#### Hizkuntzalaritza lanak

- *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne* Anton Abadiarekin elkarlanean (1836)
- *Dictionnaire basque, français, espagnol et latine* (1856) *M arte*
- *Histoire primitive des Euskariens-Basques* (1840-1847) Beltzuntzeko kondearekin elkarlanean. **Atal batean Aitorren elezaharra ematen da.** (Maiatz aldizkarian euskaraz argitatu)

#### Saiakera

- *Azti-begia, Agosti Chaho Bassaburutarrak Ziberou herri maitiari Parisetik igorriarik* (1834)
- *Paroles d'un voyant* (1834) 1989, ISBN 2.904.348.352)
- *La Philosophie des Révélations* (1835)
- *L'espagnolette de S. Louis, Agonie du Parti Révolutionnaire en France eta Lettre a Jacques Laffitte* (1840)
- *Philosophie des religions comparées* (1846)

#### Narrazio eta nobelak

- *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des basques* (1830)
- *Lelo ou la Navarre il y a 500 ans* (1848)
- *Safer ou des houris espagnoles* (1854)
- *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan. Itinéraire pittoresque* (1855)

#### Bestelakoak

- *Azti-begia eta beste izkribu zenbait* (1992, Elkar)
- *Kantutegia* (2006, Susa)
- Aldizkariak: *L'Ariel* eta *Uskal-Herriko Gaseta*



## 1. Lara, bardo kantabriarra

---

Xahok, *Aitor kantabriar kondaira* liburuaren bidez *aitonen semea* zen Aitorren legenda sortu zuen, euskaldunon arbasoa. Bertan, euskaldunok hizkuntza nola sortu genuen irudikatzen da, barduluen tribuko batzar batean, Larak, suaren inguruan bildutakoei azalduz.

Orain bi mila urte inguru kokatu zuen, hiru egunez luzatzen diren ilargi betearen jaiari, solemnitare handiz, tribuaren zaharrenek Larari utzi ziotenean, euskaldunon historiaren atal garrantzitsuenetakoa den gure hizkuntzari buruz hitz egitea, 2.000 urte zituen haritz baten azpian eta tribuko guztien aurrean.

## 2. Xahoren proposamen etimologikoak

---

Eskuineko testuak Hector Iglesiasek itzulitako Aitor kantabriar kondaira liburutik hartuta daude, Maiatz aldizkariaren 49. eta 50. zenbakietan argitaratutako pasarteetatik. Ezkerrean Xahoren proposamenak zehazten saiatu gara. Xahok erabilitako "gizona" hitzaren ordez, "gizon-emakumea" erabili dugu testuetan.

Bere jaiotzaren 2. mendeurrena ospatzeko egindako itzulpen hau ezinbestekoa zen, obra garrantzitsu hau 163 urtez geure hizkuntzan jarri gabe egon delako. Liburua agortu berri bada ere laster argitaratuko dute berriz ere.

---

### eskua

*heskoa* - > *eskua*

garailea, menperatzailea

Arranoaren atzaparra indartia da, leihoaren erpea ikusgarria eta beldurgarria; baina gizon-emakumearen eskua, dela lur hazlearen barnea idekitzen duena, dela brontzeko haizkora borrokan astitzen duena... eskua tresna ezin hobea da, ezin garaituzko arma bat. Gizon-emakumeak haren bidez du garaitu, menperatu (Hes) sorkuntza osoa... eta garaipen handi horren orroitzapenetan da deitua eskua, Heskua, Eskua erran nahi baita garaile eta menperatzaile.

---

### eska


*esk(u)a*

eskua luzatuz eskatzen dugu

Gizon-emakumeak eskua luzatuz du galdegiten eta otoitz egiten, Eska.



<p><b>esken</b> <i>esk(u)en</i> eskua luzatuz eskaintzen dugu</p>	<p>Eskuarekin du eskaintzen eta emaiten, Esken.</p>
<p><b>esker</b> <i>esk(u)er</i> eskuaren keinu batez eta irriño batez eskertzen dugu</p>	<p>Eskuaren keinu batez lagundutako irriño batek poza adierazten du; gizon-emakumeak eskerrak horrela ditu emaiten, eskerrak bihurtzen, Esker.</p>
<p><b>eskuara</b> <i>esku-era</i> eskuen bidez adierazteko artea</p>	<p>Eskua hizkuntzaren laguntzailea da, eta bere erran-nahi adierazgarria jatorrizko mintzairatik bereiztezina zen. Keinua begiei mintzazen zaie, soinuak belarria jaiten duen bitartean.</p> <p>Zein beste herrik ukan zuen, nerea baino maila perfketuago batean, hitzaren inspirazioa eta keinuaren adostasuna pentsamenduarekin? Mimikaren arte elokuenta horrek, besoen, eskuen eta erihien mugimendu kalkulatu horiek lengoia ahoskatua lagutzen zuten eta, beharrezkoa balinbazen, ordezkutzen.</p>
<p><b>eskontza</b> <i>esk(u)-on-tza</i> eskua elkarri emanez, senar-emazte bihurtzea</p>	<p>Gizonak eta emaztekiak elkarri eskua eman zioten; eta bateratze xarmangarri honen zoramenean, erran zuten, On, ongi da! On da; gozoagorik ez da deus. Eta geroztik, ezkontzari tribuetan, deitzen zaio Ezkuontza, erran nahi baita egintza zeinaren bidez bi maitale hartzen baitira senar-emaztetzat, eskuak elkarri emanez.</p>
<p><b>ezteiak</b> eztei-jaia</p>	<p>Ezkondu berriei eztaia emaiten zitzairen, Ezti, atsegin hobezinen ikurra; hortik dator eztei-jaia Ezteia deitu izana. Zein herri egon zen, euskotarra kenduta, izadik inspiratuago eta zein herrik jarri zituen bere lehenengo erakundeetan xarma eta soiltasun gehiagorik?</p>




<b>arritu</b> <i>arri-tu</i> izuagatik harri bihurtutako gizon-emakumea	Nihaurek ditut ikusirik, egun larri haietan, sorkuntzaren izaki bizidun guziak izialduraz idortuak: horra zergatik gizon-emakume harrituaren ideia hitz bera baten bidez adierazten nuen, harri bilakatua, izialduraz hartua. Sekulazko lazturak hiz-zeinu bat kausatzen du, hortzikara bat, hozkirri bat larruazalpetik dabilena; odola geldiarazten du zainetan eta izaki bizidunak harridura batez joiten ditu mugitzeko eta mintzatzeko ahalmena kentzerainokoan.
<b>isil</b> <i>hitz-il</i> hitza iltzea	Nire ezpain dardarakorrek luzaroan mutu gelditu ziren; mintzamena hila zen nitan, hitz-il, zeinak mintzoaren deuseztatzea erran nahi baitu.
<b>hegatza</b> <i>hegal-atza</i> <i>haitzaren hegala</i>	Luzaz aterpetzat ukan nituen haitz malkarretako bazterrak izendatzeko irudikatua izan zen.
<b>atea</b> <i>arri-tea</i> <i>harri meta</i>	Atearen izena oraino dauka, zeinak harri-pila adierazten baitu, hilobi ilun batean bezala bizi ginen harpearen sartzea ezkutatzeko eta hesteko biltzen nuena.
<b>atuna</b> <i>at-una</i>	Ohituratik eratorritako sen hori, iluntasunean zehar gizon-emakumea gidatzen duena eta ikusten ez dituen objektuak bere eskupean aurkiarazten dituena.
<b>(h)obia</b> atsedenerako leku ona, ametsgaixtorik gabe	Patriarkek orok beren hilobia hor zuten ukan, askotan tristezian eta doluan bizi izan ziren harpeetan beretan. Ehortz tokia Hobia izendatzen nuen, ohe hobereana, atsedean handiaren ohea, loaldiarenarekin bat ez datorrena, zeinean hainbeste zoritxarreko ametsek gizon-emakumea asaldatzen baitute.



<b>ilona</b> il-ona (hil ona)	Ilunpetako erreinua, loaldiari lotu gaua, ilona deitua izan zen, izaki bizidunen atsedean ona.
<b>iltza</b> <i>iltzea</i> gau handia	Eta berezko heriotza iltza (hiltzea), loaldi handia edo gau handia.

<b>hilerria</b> hil-erria	Egun, belardi gorenetan, jendalde bakoitzak hildakoen herrialde bat dauka, Hilerria.
<b>ililia</b> hil-lilia	Zenduen lilia baltsamo arrosaz nahasia dena, hilobietako hiriko orroitari bakoitzean hasten da: baina Euskotarra beti orroitzen da bere arbaso biluziak, gose hamikatuak, abantzu salbaiak, beren harpeetan bizi izan zirela eta hil.
<b>oian</b> (ohiana) <i>ohi-an</i> oihu guztiak	Oihu hitzetik, garrasi bat erran nahi duena, Oihan-en izena eman nion, sorkuntza bizidunaren harrabots guztiak, izadi biziaren oihu guztiak, hor bilduak, kontzertu mugagabe eta triste baten lastura ezin ederragoan, aurkitzen zirela aditzera emanaz.



<b>sugar</b> su-gar	Su hori, ordurako, alde guzietarik idekitzen ziren mila sumendiri zerion. Lurra eri zen eta sukartsu. Analogia harrigarri bati jarrikiz, zeina era berean gizonari eta biziriko haragipen guzietatik baitagokie, nuen definitu sukarra su bat balitz bezala, goritasun bat, Su-kar; su-k sua izendatzen duenez geroz, garr-ek sugarra, eta er-erre-k errekontza.
<b>eria</b> <i>er(r)ea -&gt; erria</i> barrutik "erreta"	Eria, zeinaren barnean bizitzaren iturria eta oinarria barneko su irense batek agortuak baitira, Eria deitua izan zen.
<b>erioa</b> (heriotza) su-eragilea	Heriotza bortitza Herioa deitzen nuen, erran nahi baita su-eragilea.
<b>sutsua</b> <i>su-tsu</i> <i>agortzen duena</i>	Eta tristezia Sutsua, erran nahi baita bihotzak agortarazten dituen su bat.
<b>aserretzia</b> (haserratzea) <i>as-erretzia</i> erretzen hastea	Mendiek, sumendietako erupzioak gertatzen zirelarik, harrabots izigarriak entzunarazten zituzten; orduan erretzen hasi zirela erraiten nuen (errehasten); ordudunik burrunba dagien harrabotsari erastea hitza jartzen diogu. Iraultze silabiko baten bitartez, Has-erretzea hitza asmatu nuen, zeinak, bere errotikako balioan, erretzen hastea erran nahi duena, eta, eguneroko hizkuntzan, haserre gorritan jartzea, amorru bizian.
<b>kexu</b> ke-xu	Ke beltz eta itogarri baten zirimolak, erdizka idekiak ziren lurreko mendi-mazeletarik ateratzen ziren, eta beren

kea dariola	oldarkako ateratze azkarrak elementu suntsitzailearen furfurua erakusten zuen: orroitzapen horretarik dator kexu hitza, gizon-emakumearen sumindurari eta elementuenari emana.
<b>erasotze</b> er- erreduraren zabalkuntza	Gero, sugarrak haizeek bortizki bultzatuak, urrunera barreiatzen zirelarik, su inbaditzaile hori ikusterakoan, Erasotze hitza asmatzen nuen, eraso eta inbasio ideiak adierazten dituen.
<b>erauntsi</b>	Erasotze hitzetik Erauntsi hitza dator, bortizki erortzen den urezko edo suzko euri bati emana.
<b>ero</b>	lkaratzen den lurra, sutan, zoro bezala iruditu zitzaidan, borrokatzen ikusten nuen nahasmendu izigarrian eta Ero hitza sortzen nuen, elementuen, animalien eta gizon-emakumearen erotasunari emana.
<b>erori</b> <i>er-or-i</i> gutziz erre ondoren jausten dena	Azkenik, suhartzearen ahaleginak mendiak beren granitozko arroekin, kontinenteak beren hiriekin erraustuak ukan zituelarik; herrialdeak eta erresumak suntsitu ziren, suzko aintziran hondoratu. Horra zergatik Er-or-i hitzak, erran nahi baita, bere funsezko zentzuan, erabat errea dena, erortze ororen kontzeptua adierazten duen, erortzen eta lurrareten den gauza ororen mugimendua. Horrela izan zen Suholdia deitzen nuen sute handia.
<b>erriak</b> (herriak) errea izan dena	Bizitzeko egokiak ziren lurraldeak, etortzekoa zen gizon-emakumearen batzatzeak, herrialdeak, nere tribuak goaitatzen zituzten eskualdeak suhartzetik ateraiak ziren, buztin-ontzi apaina buztinlariaren labetik, erreta gero, ateratzen den bezala; Erriak deitu nituen, edo-ta errea izan dena; horren ondorioz, Euskal Erriak deitzen dira gaurregun Pirinio horietan euskal-kantabriar federakuntzako zazpi probintziak.
<b>garbi</b> <i>gar-bi</i> garrak garbitutakoa	Sutik su, eta sugarretik gar, erraiten dut, lurak garbi iraun zuela, Garbi, arragoak garbitu urrea bezala.
<b>garai</b> gar-ai gartsua izateak ematen duena	Gar errotik sugarra izendatzen duena, garai eta garaitze hitzak sortu nituen, nagusitasunaren eta garaipenaren ideia adierazten duena.
<b>garratz</b> gar-r-a(i)tz garaiezina	Garratz, edozein gauza garaiezini eta ikaragarri emana.
<b>lurra</b> lo-ur	Lotan dagoen aintzira bat iruditzen zuen lurak, luzaz ikusi dut: lo-ura deitzen nuen, irudi hori adierazten duena.
<b>uso</b> ur-so urari so dagoena	Eta urtxoak, Urzo uraren izen bera hartu zuen gure mintzairaren euskalki guzietan, Euskotar-Iranitarrek edo Persiarrek Uhaleska ere izendatzen zutenaz geroz.

